

Dendara joan barik, landare-esnea etxean

- ▶ Itziar Bartolome arrasatearra Chufamix etxetresna Euskal Herrian komertzializatzen ari da egunotan
- ▶ Landare-esnearen sektorean dagoen "monopolioa" eta prezio garestiak hautsi nahi dituzte

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

"Esne begetala kontsumitzen dutenendako sekulako iraultza da". Horrelaxe aurkeztu digu Itziar Bartolome arrasatearrak merkaturatu berri duten etxetresna; Chufamix dauka izena.

Merkea eta kalitatezkoa

Hazietatik eratorritako esnea kontsumitzen dutenek ondo dakite ekonomikoki zer dakarren horrek. Bada, besteak beste, horrek egiten du erakargarri etxetresna berria. "Enpresa handiek esne begetalaren merkaturatu monopolizatuta daukate, eta hori bidegabea iruditzen zaigu. Tetrabrik batek bizpahiru euro balio du. Bada, Chufamixekin, 500 gramo hazirekin, hau da, bi euro ingururekin, 10 litro esne ortzen ditugu. Kontuan izanda Chufamixek 36 euro balio duela, berehala amortizatzen da. Esnearen kalitatea, gainera, askoz hobea da, pasteurizatu gabea eta momentuan egindakoa".

Hortxatagile baten ideia

Arrasatearra hasieratik dago proiektuan sartuta, baina etxetresnaren ideia Valentzian bizi den Andoni Monforterena izan zen: "Hortxata egiten du, eta edozeini hortxata etxean egiteko



Itziar Bartolome (morez), ekodenda batean, Chufamixa aurkezten. | CHUFAMIX


aukera eskaini nahian jaio zen ideia. Hortxata edozein hazirekin egin daiteke: hurrak, almendrak, intxaurrekin..."

Debagoiengan, laster

Arrasatearra oso pozik dago proiektuak izan duen hasierarekin: "Ikarragarria da izaten ari den harre-

ra. Valentzian aurkeztu ostean Katalunian ibili gara. Orain, Euskal Herrian gabiltza komertzializatzen; hemendik Madrilera eta Alemaniara goaz".

Debagoiengan ere hainbat denda bisitatu dituzte eta laster Bergaran, Arrasaten eta Oñatin eskuratu ahal izango da.



Erabilera moduaren azalpena. | CHUFAMIX

Zapatuan baserriarren azokan

Chufamixa bertatik bertara ikusteko eta sortzen duen landare-esnea probatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Arrasaten. Baserriarren azoka egingo da Seber Altuben, eta Garaion elkartearen postuan egongo dira, azalpen guztiak ematen.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak

